



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

EZKERRA EUROPAREN AURREAN

SOKOA III Nazioarteko III Topaketei eginiko ekarpena

GARAPEN EREDUA

Alberto Frías

EGUZKI euskal talde ekologistako partaidea

EKARPENA

- 1.- SARRERA
- 2.- GLOBALIZAZIOA, EUROPA ETA ESTATU-NAZIOA
- 3.- LURRALDEAREN METROPOLIZAZIOA
- 4.- GLOBALIZAZIOAREN ESPAZIO ERAGINA
- 5.- LURRALDE ETA NORTASUNA
- 6.- ONDORIOAK
- 7.- EBAZPENAK
- 8.- ERANSKINAK: Garapen alternatiborako oinarriak



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

1.- SARRERA

1) Lurraldearekin harremanatzeko, berau interpretatzeko eta norbera ekosistemaren parte sentitzeko modu zehatz baten heriotzaren aurrean gaudela jakin badakigu. Hau da, bizitzeko era hau lurrean zein bertan bizi dugunon kontzientzian sekulako aztarna ezabaezina uzten ari da. Ekarpen honek, bidean gelditzeko eta merkatu arauak zein globalizazioaren aginduek nahi dugun tokira eramaten gaituzten hausnartzeko parada eskaintzea du helburu. Hau da, eraikitzen ari diren Europa hau, lore haragijale bat ez ote den hausnartu behar dugu.

2) Urteetan Europaren inguruan izan dugun irudia kontzeptu batzuei zeharo lotuta egon da: Ingurugiroarekiko errespetua eta, gizarte eskubideak; baina egun irudi hori errealitatearen maskara baino ez da. Elkartasuna, ingurugiro eta gizartearen aldeko Europa kiratsa darion hilobi bat da, nahiz eta ofizialki bere hileta oraindik ez ospatu. Egungo prozesu konstituziogilearen ondorioz, ekonomiaren globalizazioa eta/edo erregionalizazioa hasitako bidea azkartzen da. Europako konstituzio ituna kokatuta dagoen parametroek garapen demokratikoan oinarritutako ereduak ezartzea ezintzen dute.

3) Rioko mintzaldia izan zenetik hamar urte pasatu dira; geroztik “garapen jasangarriaren” kontzeptuaren erabilera indiskriminatua ez da hurrengorako baliagarria izan: egungo sistema ekonomikoaren jasanezintasuna arintzera zuzenduta dauden politika erreal eta eraginkorak ezartzeko. Garapen jasangarriaren inguruko erretorika jasanezina jasangarri egitean datza. 2000an, Johannesburgoko Garapen Jasangarriaren Mundu Gailurra izan zen. Honen ondorioz Europako erkidegoen batzordeak Europako parlamentukoei zuzentzean Rio de Janeiron sortutako aurreikuspenak (berton edo Johannesburgon) bete ez direla onartu behar du. Geroztik, mundu mailan, pobrezia zein ingurugiroa eta baliabide naturalen kontrako presioa areagotu da. Ekoizpena eta kontsumoa bide jasangarri batera berriro bideratu behar dira. *“La presión sobre el medio ambiente y los recursos naturales ha aumentado desde entonces y la pobreza ha seguido aumentando a nivel mundial. Reconducir la producción y el consumo a una vía sostenible sigue siendo algo más retórico que real”*.

4) Europako batasunak azkeneko hamarkadan hitzarmen eta itun asko onartu izanak ez du pobrezia eta ingurugiroaren kontrako presioa areagotzea ekidin. Hurrengo hauek Europako Batasuneko Liburu Berdea, Egonkortasunerako Europako Hirietako Alborg Ituna, Hannoverko adierazpena, Europako garraio politikaren inguruko liburu zuria, ingurugiroarekin lotutako Europako Batasunak V. eta VI ekintza programa eta hiri-ingurumenari buruzko tematikorako estrategia baterantz.

5) Kapitalaren Europaren alde egiten den europar konstituzio itunaren ondorioz egoera are larriagoa da oraindik. Itun honen ezaugarriak hauek dira: kapitalaren zirkulazioa librea izatea, aduana-batasunean eskumenak izatea eta moneta zein merkatal politikaren eskumenen gaineko arauak ezarri ahal izatea. Gizarte politikak estatuen esku geratzen



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

dira eta hauek beherako joera batean batuko dira. Langileen mugikortasunak deslokalizazioa dakar eta multinazionalen nagusitasuna errazten du.

6) Europa honek oinarritzko arlorako diren helburuak merkatu propioaren sorrera eta produktibitatea dira. Merkatu propio honek, merkatu eta nekazaritzako elikaduran oinarritutako enpresen esku uzten du arlo honen etorkizuna beronen interesei erantzun beharrean. Nekazaririk gabeko nekazaritza planteatzen da; bere multifuntzionalitatea eta ingurune zein kulturarekiko harremanak baloratzen ez direlarik. Europar konstituzio itunak “Europako Batasunak” zein NBE bezalako beste nazioarteko erakundeak adostutako dokumentuei ematen dien trataeran utzikeria da nagusi. Aldiz, garraio, telekomunikabide zein energiaren transeuropar sareei atal oso bat eskaintzen die eta apustu honek ingurugiroan dauzkan eraginak ez ditu ezta aipatu ere egiten.

7) Globalizazio finantzieroaren itun honek gizarte zein ingurugiroarekin lotutako gaien mespretxua eta eragile ekonomikoen arauen inposaketa dakartza. Itun hau ez da herrien ituna, ezta hiritarrena ere. Kapitalaren ituna da hau.

8) Errealitatea eta diskurtsoaren arteko banaketa ikusita Europaren etorkizunerako nahi dugun lurralde eredu eta garapena lortzeko ezinbestekoa da buru belarri aritzea. Ezin gaitzke gure historiaren ikusle izan. Erronka ederra aurrean daukaguna; zeren eta bizi garen une historiko honetan garapen edo gizarte-ereduak baino, hauek ematen diren abiadurak garrantzia gehiago dauka. Abiadura honek errealitateari aurre egiteko ez du paradarik ematen askotan. Errealitatea ulertu, aztertu eta berari aurre egin behar diogu. Globalizazio eta europeista den itsaso honetan kolektibitatearen indarra eta babesaren itsasontziak ezin du noraezean joan.

9) Garapen jasangarriaren aitzakiapean benetan hazkunde mugaezin, ezinezko eta jasanezina bilatzen dutenen aurrean hurrengo hau defendatzen dugu: hiritarren partehartze aktibotik abiatuta, etorkizunean nahi dugun Europa ereduaren inguruan gizarte adostasun zabala lortu behar dugu. Modu berean aztigai berriek deitutako demonioak kontrolatzeko botere nahikorik gabe hauek egindako zirena kantuen aurrean gaitasun endogenoa balioan jartzen da

2-GLOBALIZAZIOA, EUROPA ETA ESTATU-NAZIOA

“Gizabanakoek egoerak benetakoak bailiran definitzen badituzte, berauen ondorioak ere benetakoak dira”.

Thomasen Teorema

10) “Globalizazio” hitzaren zabalkundea, ekonomian ez ezik bizitzako beste arloetan ere, eta, hedabideen etengabeko erabilera ez da hutsala inola ere. Honek errealitate



EZKERRA EUROPAAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

birtuala sortzea du helburu, giza errealitatea artifiziarki eraikitzeko. Beraz, europar eraiketaren prozesua ke gortina baino ez litzateke nagusiki bi aspektu ezkutatzeko. Lehenengoa, sistema ekonomikoaren berrantolaketaren alderdi odoltsuenak . Eta bigarrena, baztertzaila eta insolidarioez gain, gizarte eta ingurugiroan eragina daukaten garapen ereduaren aldeko apustua..

11) Globalizazioa ez da kontzeptu zentzu bakarra. Hitz berak esangura ezberdinak hartzen ditu. Alde batetik, errealitate objektibo bat, bestetik sistema ekonomikoaren eboluzioa eta, azkenik eta nagusiki, ideologia bat. Ekonomi politika ispilu joko bihur ez dadin eta, guztia gehiegi laburbiltzeko tentaldian eror ez gaitezen, non arlo ekonomikoari giza dimentsioa falta zaion edo politika eta ekologiarekiko elkarrekintzak ahaztuta geratzen diren eta arazo zehatzetan murgildu aurretik (estatuaren tamaina, funtzioa edo leku berregituraketaren ondorioa). Agian, galdetu egin beharko genuke globalizazio, erregionalizazio ala internazionalizazio eskenatoki baten aurrean ote gauden.

12) Europaren proiektua eta globalizazio kapitalistaren prozesuaren garapena batera datozela argiro dager. Gaur egun, honen adierazle goiena Europako Konstituzio Ituna dugu. Hauxe baita finantza globalizazioaren ituna, giza alderdien abandonuena, ingurugiroko gaien mesprezuarena, agente ekonomikoek ezarritako joko arauena. Alegia, kapitalaren ituna. Ez herritar eta herriena.

13) 30.Hamarkadan EAJ-k Aberri Egunetan goratzen zuen Herrien Europa, egun, eskualdeen batzordea besterik ez da. Apaindutako kabineteak bidean pisua galtzen duten txostenak egiten. Helmugarik gabeko bidaian ez ziren alforjak behar.

14) Abertzaletasun burgesa eta neoliberalismo espainiarraren kontzepzio teknokratiko akulturala eskutik datoz, Europaren proiektua defendatzeko orduan, zeinek Euskal Herria hurrengo baldintzetan uzten duen:

-Ezarritako lanaren nazioarteko banaketaren errespetu zorrotza.

-Herri nortasunaren desagerpena eskualde transakitanian, ardatz atlantikoaren parte bezala.

-Kapitalaren internazionalizazio beharretara bertakoa egokitzeko endogenoaren instrumentalizazioa.

15) Sistema ekonomikoaren funtzionamendua osatzen duten elementu gehienek beren globalizazio historia daukate. Baterakotasun eza, ordea, ezaugarri nagusia litzateke. Etapa berriak aurrekoen ondoan ezberdintasun esanguratsuak erakutsiko lituzke: merkatu, partaide eta tresna berriak leudeke, testuinguru multipolar batean hain automatikoa ez den inguru (marko) erregulatzaila eta finantza isuri gordinen hazkunde izugarria.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

16) Ikuspuntu historiko batetik, ageriko joera trinkoenak kontingenteak suertatu izan dira. Hala ere, egoeren atzeragarritasun potentziala ez litzateke ahaztu behar, une zehatzetan argiro menperatzen badute ere. Gogoeta hau bereziki interesgarria da lurralde gaineko jokaera gogorak, neurri handi batean, itzulezinak direlako.

17) Globalizazioak aurrera egin ahala, bai eta langile, enpresa eta kapitalaren mugikortasuna ere, gobernuetatik gero eta zailagoa izango da errentaren berriro banaketa politika egitea. Globalizazioko irabazleak mugikorrenak lirateke.

18) Mugikortasuna lehiakortasun eta eraginkortasunaren oinarritzko mugatzaile bilakatzen da, enpresetarako eta goi-kualifikatu eta aberatsak diren pertsonentzat. Globalizazioari esker, ekoizpena eraman dezakete gastuak baxuagoak diren lekuetara, kapitala kokatu errentabilitatea (behin ezarrita) handiagoa direnetan eta, euren lana saldu (zergak kenduta) soldatak altuagoak diren tokietan. Galtzaileak konpentsatzeko, bozemaile gehienak zergak igotzearen aldekoak izan arren, merkatuek, enpresa berberak eta finantza instituzioek alegia, mugikortasunari esker saihestu dezakete.

19) Gobernu baten ahalmena, inbertsio, kontsumo edo transferentzi gastuak egiteko zergak ezarri eta biltzeko gaitasunean datza. Honen ondorioz, ekoizpenen faktoreen mugikortasunak, funtsean diru- sarrera publikoen bilketarik handiena lortzen duenak, gero eta zailago bilakatuko du estatuen gastu ahalmenari eustea.

20) Familia, kultura eta hizkuntzako sustraiak direla eta, eskulana daukagu faktorerik mugigaitzena.

Beraz, zailagoa da zergapetzea. Modu honetan gobernuak gastu publikoa handitzen jarraitu dute, baina bilketaren zama leku aldatuz, kapitalaren errentetatik lanaren errentetara. Ekoizpen faktoreen bestelako mugikortasunak zergapen maila adieraziko luke.

21) Zergapena hurrengo puntuetarantz lekualdatuz joango da: hain mugikorak ez diren aktibo eta faktoreen errenta, behe eta ertaineko kalifikazioko lanbide, lur-ondasun eta errentetara mugitu ordez, gastuetarantz bideratuko da. Harik eta harmonizazio fiskal handiagoa edo fiskalitatearen murrizpen gogorra gertatu arte, eta ondorioz, estatu eta gobernuen aldetik giza eta ekonomi politika egiteko ahalmenaren txikipena suertatu da.

22) Halaber, babes handieneko eskaerak ugaltzen doaz eta Estatuaren diru-sarrerak murrizten. Hortaz, biztanleek beraiek kostua bere gain hartzeko joera azalduko dute, segurtasuneko jarduerak pribatizatuz. Euroaren etorrerak eta aurrekontuetako egonkortasunerako akordioek norabide berean jotzen dute.

23) Azaldutako eskenatokiak paradoxa batean kokatzen gaitu. Globalizazio prozesuko galtzaileentzako babes handiagoaren beharra eta Estatuaren ezinaren artekoa berau asetzeko beharrezkoak diren baliabideak sortzeko orduan. Kontraesan honen emaitza,



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

irteera bat bilatu ezean, ekonomi eta giza-adierazpenetan, egungo globalizazio prozesuaren aurkako herri gaitzespena liteke.

24) Bestalde, merkatu eta ekonomiaren globalizazioak eragina dauka Estatuaren egungo kontzepzioan, eginkizunetan eta politiketan. Bere berdefinizioa eta berregituraketa sakona iradokiz.

25) Ekonomiaren irekiera eta globalizazioarekin batera, Estatu burgesaren zenbait sustrai ekonomiko eta politiko narriatzen ari dira. Bere oinarrietako bat, buru hornikuntza suntsitua izan da. Komunikazio teknologien garapena, garraioa eta informazioa Estatu-nazioaren ideia ahultzen ari dira. Eskualde integrazioaren gune handiak ezarriak izaten dira, Europako Batasunaren adibide paradigmaticoan bezala.

26) Munduko merkatu finantzariaren mendetasuna murrizteko, gobernuek daukaten zailtasunagatik, Estatuaren subiranotasuna oso ahulduta geratuko litzateke. Nazioarteko merkatuetan iraultza globalizatzaile honen aurrean, Estatuak behartuta leudeke, tamaina, zeregina eta funtzioak berdefinitzera. Berdefinizio honek etsai andana eragin du eta jarrera atzerakoien berrarmaketa eragiten ari da. Nazionalismo atzerakoi eta integristen igoera, bai ideologikoa, bai hauteskundeetan. (Austria, Frantzia, Espainia,).

27) Eskenatoki honetan arlo pribatu eta publikoen arteko lankidetzak berebiziko garrantzia hartzen du. Estatuari joko arauen "gain begiraketa" eskatuko litzaioke, baina antolakuntza arlo pribatuaren eskuetan geratuko litzateke, hezkuntza, osasun, giza segurantzaren edo pentsio arloetan parte hartuz.

28) Ildo honetan, hainbat arlo europarrek Estatuaren botere ekonomikoaren ahultzea eta galera defendatzen dute. Maila multinazionalean politika sozialdemokratik garatzeko aukera bakarra, munduan gobernatzen duten instituzioen garapenen menpe kokatzea litzateke. Berau litzateke, instituzioen garapena hain zuzen, europar instituzio berriek bete beharreko zereginetako bat.

29) Tesi globalizatzaileek sekula ez gertatutako ekonomi orden berri baten agerpena defendatzen dute. Beronen aktibitate zentroa enpresa transnazionalak lirateke. Edozein Estatu baino boteretsuagoak eta ondorioz, bere politika publikoak derrigortzeko ahalmenarekin. Honen aurrean, nabaritasun enpirikoak beste argudio batzuk aurkezten ditu: munduko aktibitate ekonomikoak enpresa multinazionalen esparrutik at burutzen dira nagusiki. Multinazionalen aktibitatearen heren bat besterik ez dute kontrolatzen eta beste herri batzuetara hedatzen diren enpresa nazionalak besterik ez lirateke (operazio zentroa beste herri edo eskualdean dutela).

30) Gaur egun, globalizazioaren ordez, hiru Estatu hegemonikoen inguruko jarduera ekonomikoaren erregionalizazioaz mintza gintezke: AEB, Alemania eta Japon. Berauek osatu dute hiru eskualde ekonomikorik garrantzitsuenak, Iparramerika, Europa Batasuna eta Hegoasia. Horrela, munduko jarduera ekonomiko gehiena barneko eta eskualde



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

artekoa litzateke eta ez mundu mailakoa. Ekonomi indarberrituen agerpenak (txinatarra bezalakoa) edo sakoneko akordio ekonomikoek (Brazil, Argentina, Venezuela ardatza) botere hegemonikoen arteko indar harremanak aldatzeko beldurra eragiten dute. Halaber, berau “gerra hotz” berria iritzi diezaiokegun sasoia eragiten ari da. Argiro adierazten dutenez, petrolio baliabideen gaineko kontrolari eusteko AEBren “etengabeko” inbasioek. Ildo honetan, Europar Konstituzio Ituna AEBeko alderdi errepublikarraren bide bera ari da burutzen.

31) Izan ere, 1995ean kapital produktiboaren munduko isuriaren ehuneko 75 a Iparramerikan, Europa Batasunean eta Asiako ekialdean sortu zen. EBren adibidean, ekoizpen jardueretan inbertitutako kapital gehiena nazio-aurreztetik dator, Estatu bakoitzaren barnean eginda.

32) Kapitala, ondasun eta zerbitzuak eta, giza baliabide eta pertsonalaren erabateko mugikortasuna daukan merkatu bakarrerako EBren bilakaerak ez du batasuna suposatzen giza arloetan. “Estatu nazionalak” bere ongizate egoeraren arduradun(a) izaten jarraituko du. Esparru ekonomiko europarreko joko arauak markatuta daude mundu mailan, baina berau garatzen den baldintzak aldatu egiten dira.

3.- LURRALDEKO METROPOLIZAZIOA

33) 1983ko lurralde antolakuntzarako itun europarrak kontzeptu aurreratua proposatzen zuen: Gizarte osoaren politika ekonomikoa, kulturala, gizartekoa eta ekologikoa islatuta geratzen da lurralde antolakuntzan. Kontzeptu zuzentzaile baten arabera, espazioaren antolaketa fisikoa eta eskualdeen garapen orekatua helburua duen diziplina zientifikoa, teknika administratiboa eta politika bat litzateke aldi berean.

34) Bere ezaugarrien artean hauek biak nagusitzen dira: lurraldeko antolaketak demokratikoa behar du izan (kaltetutako herriaren partehartzea bermatuz) eta globala (alorreko politika ezberdinen koordinazioa bermatuz).

35) Lurraldeko erabilera zentzuduna oinarritzko helburuen artean kokatzen da, industrial eta hiri-gune handien garapen, antolaketa eta ezarpena kontrolatzeaz gain, baso eta nekazal guneak babestu aldera.

36) Horrenbestez, (maila komunitarioan) lurralde antolakuntzarako oinarritzko osagaiak hurrengo hauek izango dira: lurralde antolakuntzako kontzeptu zabala, izaera demokratikoa eta globala (arlo-politiken koordinazioa bezala), irizpide ekonomikoen nagusikeria saihestea, nekazal guneak babestuz industrial eta hiri-garapena kontrolatzea(zaintzea) eta lurraren erabilera zehazteko ingurumeneko parametroen erabilpena.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

37) Lurralde antolakuntzarako politikak plangintza ekonomikoa eta bai ingurugiroko zainketa ere kontuan hartu beharko ditu. Horretarako hurrengo puntuak bere gain hartuko ditu: -garapen kualitatiboa lortzeko plangintza ekonomikorako politikari buruzko erabakiak. - arlo-ekonomiko ezberdinen arteko desoreken zuzenketa, bai eta eskualdeetakoak ere. Modu honetan, lurralde antolakuntzarako egitasmoek dagozkien aurreikuspen eta lur-erreserbak aditzera ematen dituzte plangintza ekonomikoaren irizpideak eraginkorrak izan daitezen, zeintzuk burutuak izango diren arlo-legeriaren garapenean. -aldi berean, ahalik eta irtenbide gehien aztertu beharko ditu eta lurreko zentzuzko erabilpena ondoen egokitzen dena hautatu, ingurumen mailako parametroa erabiliz, zeinek ekarriko baitu lurrean ezarri beharreko erabilpena. Beraz, Ingurugiroa izango da lurreko erabilpena zehaztuko duena eta ez alderantziz.

38) Premisa hauen gainean, Lurralde Antolakuntzarako Agiri Europarrean hurrengo puntuak bere gain hartzeko helburua azaltzen dute: eskualdeetako desorekak murrizteko joera duten printzipio komunak eta modu honetan, espazioaren antolaketa eta erabilpenaren kontzeptu orokor hobea eskuratzea, ingurugiroa babestea eta bizi-kalitatea hobetzea.

39) Hitzaurrean proposatzen du “epe motzeko helburu ekonomikoek eragindako erabateko zehaztapena saihestu nahian, lurralde antolakuntza arautzen duten printzipioen zuzenketa”. Ingurugiroari buruzko atalean, partehartze herritarraren beharrari dagokion ildoan azaltzen du: “biztanle Europar guztiek, testuinguru instituzional egokian, lurralde antolakuntzarako edozein neurriren erabakitze eta ezarpen prozesuan parte hartzeko eskubidea daukate”. Berau hurrengo testuan ere bilduta “lurralde antolakuntzarako edozein politikak, bere maila edozein delarik, herritar zuzeneko partehartzean oinarrituta egon behar du. Ezinbestekoa da biztanleria jakinaren gainean jartzea plangintza prozesuko epe guztietan eta egitura eta prozedura instituzionalen testuinguruan.”

40) Hortaz, hogeitau urte beranduago, honelako eraikuntza europarra bultzatzen duten indar ekonomiko eta politikoetatik proposatzen diren garapen eredu guztiek, hondatu dituzte alde aurretiko proposamen hauek. Finantza interes eta espekulatuzaileekiko erabateko mendetasun egoeran kokatuz. Lurralde Europar ezberdinek eskenatoki honetan, “laissez faire” eta desregulazioaren agertokian hain zuzen, kokatzea bilatzen dute.

41) “Europa Batasunaren beraren agiriak horrela adierazten dute, “hiri-ingurumenari buruzko estrategia tematikorantz (2004)” delako txostenak argiro azaltzen duen legez: “erabaki politikoek eragiten dituzten ingurugiroko ondorioei buruzko azterketaren gabezia eta hiri-ingurumenerako plangintza eza (bere kalitatea bermatua izan dadin), egungo egoera azaltzen duten arrazoiak dira. Hauek berauek ingurugirokoak ez ezik, hiriko eta biztanleriaren ekonomiarako ondorioak ere dakartzate.

42) Hegoaldeko hiriburuetan eta Iparraldean BABen inguruan (orain eremu metropolitarrak bilakatuak) ondo egokitutako masa kritikoaren sorpenarekin batera, Europar ardatz



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

handien esparruan Euskal Herriarentzako zeregin propioa bilatzea estrategia bat besterik ez da. Hauxe prozesu globalizatzaileari eta ekonomiaren kontinentalizazioan daukan islari darien lurralde gaineko eragiteko modu berriekin lotzen da.

43) Ardatz Mediterraneo hazkorraren aurrean ahuldutako Ardatz Atlantikoaren aldeko apustuak, hiri-sare baten eraikuntzaren bidez (elkarlotutako eskualde metropolitarrak, Oslo-Lisboa ardatza), goi-dentsidadeko mota guztietako garraio sareak ezartzea justifikatzen du eskualdeetako euskal kudeatzaileen begietan (Abiadura handiko trenak, Eibar-Gasteiz autopista, etab...). Bide hauen eragina ez da aintzat hartzen, “succion de polos” delakoa. Paris-Madril ardatzarekiko mendetasuna areagotu egiten du eta, aldi berean, Euskal Herriko lurralde ezberdinak urruntzen ditu artikulazio ekonomikoari eta lurralde egiturari dagokienean.

44) Globalizazioaren aurrean estatu-nazioak bere zeregin nagusia arriskuan ikusten du eta bere betebeharrak egokituz erantzuten du. Bestalde, bestelako indarrak, behetik oraingoan, honen monopolioa zalantzan ipintzen du, abantaila konparatiboen sorpen eta hurbiltasun harremanetako kudeaketarako egokitasun gaineko monopolioa alegia.

45) Abantaila konparatiboaren sortzea ez litzateke soilik aldagai zehaztugabe eta unibertsalen ondorioa, baizik eta testuinguru zehatzeko aldagai hauen laburpena, korapilatsua beti ere .Prestazio bereizleak azaldu ahal izateko, beharrezkoa litzateke aztertzea teknologiak kulturarekin egindako laburpena , enpresek ingurugiroarekin, merkatuek harreman ez merkantilekin, ekonomiak gizartearekin.

46) Pentsamolde ekonomikoaren oinarritzko mailen arteko lurralde dimentsioa berreskuratzeko deialdia egiten da. Hauxe lurraldea bereganatzeko ekonomiaren itzulpena bailitza uler daiteke, balorearen ekoizpen sistematikoa eta abantaila lehiakorren ekoizpenerako beharrezko katenbegia legez, nazio mailatik tokian-tokiko mailarako lekualdaketa azpimarratuko lukeen artean.

47) Estatu-nazioaren ahuleziari buruz, badago “jardun” eta zilegitasun krisialdiaz mintzatzen dena: “ Estatu-nazioak ez dirudi ekonomia, sare kriminal eta informazio isuriaren globalizazioa menperatzeko gauza..... Eguneroko bizimoduan eragiten duten arazo gehienek, hau da, hezkuntza, osasuna, kultura, kirola, giza-ekipamenduak, hiri-garraioa, tokian-tokiko ekologia, hiritar segurtasuna eta gure hirian eta auzoan bizitzeko gozamena, lekuan-lekuko eta autonomi erakundearen eskumenak dira.... Jendearen nortasuna estatu-nazio modernoaren ez den lurralde esparruan gero eta gehiago adierazten da. Estatu-nazioak goitik galtzen du indarra eta behetik eskualde edo nazio-nortasun sarkorregatik ahultzen da”.

48) Ekonomia globalizatuan lurraldeko testuingurua unitate ekonomikoaren lehiakortasunaren sorpenerako elementu erabakigarria da. Honekin batera, ekonomia berrian talde-ekipamenduen eta habitaten ekoizpen eta kudeaketa ekoizpenaren giza-oinarrian daudela ziurtatzen da. Halaber, biak eskualde eta bertako gobernuaren ardura



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

direla argiro azaltzen da. Honen guztiaren paradoxak bertako gobernuen zeregin politikoa azpimarratzea besterik ez luke egingo.

49) Proposamen honetan ulergaitz suertatzen da zergatik mundu mailako eskenatoki ekonomikoan eta, teoria hauen arabera, hiriek osatutako sareak talde “irudi” boteretsu eta dinamiko bilakatu ahal izango diren, zeintzuk nazio gaineko instituzio eta korporazio multinazionalekin negoziatzeko gauza izango diren. Estatuak porrot egin duten eremuetan, arlo ekonomikoan behar beste tresna izanda ere, ausartegia dirudi negoziatorako halako ahalmena aurreikustea egitura indarberritu batzuentzat.

50) Bestalde, “estatu hezurdurak oraindik orain nortasun kultural eta politikorako adierazpenaren balioa duela esan daiteke, eta ondorioz, giza, lurralde eta batasun ekonomikoarena ere bai, estatu-nazioak nazioarteko merkatuetan (des)erregulazio eredu hazkorretan zerikusia dute eta. Estatu-nazioaren zeregin nagusiek gero eta zerikusi handiagoa dute nazio gaineko eta azpiko gobernuen mekanismoen zilegitasunaren hornikuntza eta babesarekin. Halaber, eskulana mugigaitzena denez, gizarte-politikaren bidezko biztanleriaren erregulazioa, estatu betebeharren artean ildo nagusietakoa bezala aurreikusten da. Izan ere, esparru hau nazioarteko harmonizaziorik gabeko eremua da.

Eginkizun hau estatu-nazioaren berezko alderdietako batekin elkartzen da: talde nortasunaren birsortzea, giza-harremanetan gauzatzen den instituzioa bezala”.

51) Aurreikusten ei den ekonomia globalaren artikulazio berriaren aurrean, (hiri-sareen inguruan sortutakoaren aurrean, hain zuzen), estatu-nazio europarrak ez du geldirik itxaroten, parte hartzeko eredu eta eginkizunak bedefinituz erantzuten baizik. Horrela, estatu-nazioaren eredu berriaren betebeharrak eta goi eta behekoen arteko zubi zereginaz gain, giza-arloan eskumenak bereganatzea (berritutako zilegitasun fokoa ematen dio) sendotzen da. Esparru honetan uler daiteke estatu espainiarreko Giza Segurantzaren “kutxa bakarra” apurtzearen aurkako jarrera, espainiar jarrera nazionalistenen indarberritzearekin batera.

52) Berritzeko gaitasuna eta ekoizpena zehazten duten sinergiak hirian sortzen direnez, hiri-eskualde-sistema eremu ekonomikorik esanguratsuena bailitzan agertzen zaigu. Izan ere, estatu-nazioa ez da eremu ekonomikorik esanguratsuena eta enpresek ere aldeko ingururik gabe ezin dute beren lehiakortasuna zehaztu. Baieztapen honek Europa Batasuneko nazio-subirotasunaren berdefinizioari buruzko gogoeta “egokia”rekin bat egiten du, non argi uzten duen estatuaren eskumen propioen finkapena jardun nagusiko bi esparrutan: gizartekoan eta lurraldekoan (eskualde maila eta nazio gainekoaren arteko zubia).

53) Horrela, Europako Konstituzio Itunean, “aduana-batasun”, elkar lehiarako arau, moneta politika eta merkataritza politika komunari dagokienean, erakunde komunitateko eskumen propioen aldeko apustua egiten da. Langileen mugikortasuna bultzatzean, (modu honetan multinazionalen nagusitasunari eta lekualdatzeari zilegitasuna emanez), estatuen eskuetan geratuko diren gizarte-politikak “A LA BAJA” bateratuko dira.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

54) Munduko eskenatokian estatuak beraiek izan dira, beren kokapen nagusitik bere subirotasuna mugatu dutenak. Ez nazio gaineko izaki politikoen alde, baizik eta desregulazio, merkatuaren erabateko nagusitasun eta bere funtsezko agenteen alde: enpresa transnazionalak. Estatu-nazio eta liberalismoaren arteko akordioa irudikatzea, azaleratzea, giza-arautetaik eraikuntza Europar ahalbidetzeko, beharrezko aurrekontua litzateke. Ez nahikoa ordea.

55) 1995eko urtarrilean, Marrakechen munduko merkataritza erakundearen ezarpenarekin, GATTen “Uruguayko erronda” bukatutzat emateko, mundu mailako merkatu bat sortzeko etengabeko saiakerek azken hamar urteotako nazioarteko politika menperatu dute. Mugarik gabeko mundu mailako merkatua, non ondasunak eta kapitala (baina ez jendea) oztoporik gabe mugitu daitezkeen, eskaintza-eskariaren legeak araututa. Merkatu globalaren presiopean, gobernuek herri-ondasunen babesa sakrifikatzea aukeratzen dute arlo pribatuaren merkatal interesen alde. Kapital espekulatiboa erakartzeko aldeko baldintzak eskaintzera behartuta, gobernuek erregulazio berriak ezartzearen aurkakoak dira edo badaudenak betetzearen kontrakoak.

56) Herri batetik bestera ekoizpen unitateak eramateko kostua nabari murrizten denean, enpresa transnasionalek aldeko baldintza instituzional eta ekonomikoak aukera ditzakete (mundu osorako beren negozioetarako). Horrela, enpresek lana eta zergak sortzeko joeretan eragin eta hiri, giza eta ingurumeneko erregulazioak betetzea oztopatu dezaketenez, botere ekonomikoa botere politiko bilakatzen da.

57) Joko zelai honetan, kapitalaren lurraldetasun galera (lurraldea euskarri hutsa legez ikusita) eta lurraldetasun zehatzaren arteko tentsioan lurralde garapenerako estrategia berriek garrantzi handia hartzen dute. Logika bi hauen kontraposizio/jazargoan, global-transnasionala eta giza-lurraldetasunarenean, eskualdeko plangintzak onartu beharko luke lurraldeetatik erresistentzia joera.

58) Geografia ekonomiko berria eraikitako lurraldeetan baino, geometria aldakorreko eremuetan mugitzen da. Hirigintza eta gizarte mailan egituratutako hirietan baino, tentsio handipean muga zehaztugabeko eremu metropolitarretan higitzen da. Eremu metropolitarrak testuinguru ekonomiko handia bezala, kontraesan eta tentsio berrien lapiko bihurtzen da. Honen ondorioz, bai erregulazio-bideak, bai erakunde-egiturak zartatzen dira.

59) Antolatzaile berriek, hau da, beraien deabruak menperatzeko botere nahikorik gabeko azti ikasleek, praktikan ezinbestekoa den giza-adostasuna aldatu dute, interes pribatuak dituzten taldeen afaltokien eta alegiazko parte hartze prozesuen truke. Larrialdiko giza-egoeren babeserako edo kulturarako zuzendutako herri-gastua garraio eta telekomunikazio egituretara desbideratzen duten neurrian, toki-ogasunak zulo beltz bihurtzen ari dira. Bitartean, oinarriko zerbitzu publikoen pribatizazioa aldarrikatzen dute, -ildo honetan paradigmatikoa da Londresen adibidea-, kapital pribatupeko enpresa mistoen ezarpena, enpresa kudeaketa lehiakorragoa defendatuz.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

60) Aipatutako arazoak larriak izanda, abantaila konparatiboak sortzen dituzten eremu metropolitarrak bezala (des)egituratutako hiri-pilaketa handien berezko arazoak, beren puntu ahula da defizit demokratiko izugarria. Sorreran ez ezik, garapenean ere, gobernu metropolitarrak -udalerrri gaineko erakundeak bezala osatuak- ez dira zuzenean aukeratzen eta biztanleriak ezin bidera ditzake. Hiritarrek presio zuzena eragiteko ezinak eta orain arte hirietarako ezarritakoekin alderagarriak diren kontrol-bideen gabeziak despotismo ilustratuaren berragerpena dakarte metropolietako gobernagarritasunera.

4.- GLOBALIZAZIOAREN ESPAZIO ERAGINA

61) Kapitalismo garatuari dagokion lurralde eredua eskualde metropolitarra da. Lurraldean muga zehaztugabeak aurkezten dituen eredua, alegia. Eskualde metropolitarrak ekarriko lituzke espazioan hazkundearen hedapen handiagoa eta nekazal eta hiri-guneen arteko muga argiak ezartzeko zailtasun hazkorra, metropolitara eta eskualde inguruko jardueren banaketa handiagoa eraginez.

62) Ereduek espazial honi hurrengo puntuetan bereiztutako ekoizpena legokio:

-Espazioan burututako ekoizpen jardueren dezentralizazio handiagoa, jarduera tertziarioaren metaketarekin batera (batez ere, tertziario aurreratua eta arlo finantziarra).

-Eguneroko bizimoduak eta "lan indarraren burutzeak hartzen dituzten eredu berriak.

Garraio beharraren hazkunde izugarria eta energia kontsumo paraleloa lurralde ereduan gailentzen dira.

63) Nazioarteko Lan Banaketa Berrian, lurralde metropolitarrak betetzen duen eginkizunen arabera, esparru berri honek oso antolaera ezberdinak har ditzake. Ezaugarri komuna herri kontzentrazio handia litzateke. Egitura, itxura, funtzionamendua eta, betetzen duten zeregina eta burutzen duten jarduera, aldiz, berezitasunak.

64) Zerbitzu garatuak eta jarduera finantzarraren bihotza "Hiri Globaletan" kokatzen dira. Berauek, mekanismo erregulatzaile gabeziaren aurrean, mundu mailako ekoizpen eredu baten kontrol, kudeaketa eta koordinazioaren eginkizun nagusiak betetzen dituzte. Ekonomia globala, hiri zehaztatik, kontrolatu eta kudeatu egiten da. Alegia, erdibanatutako aginte betebeharra burutzen duten eskualde metropolitarrak: New York, Londres, Tokio, Paris, Frankfurt eta Los Angeles.

65) Erdigunean/zentroan munduko ekoizpenaren kontrola, zerbitzu garatuak deritzenek hain zuzen, antolaketa eta kudeaketaren funtzioak garapen sakona burutzen dutenek alegia, finantza jarduerarekin batera, kapitalismo aurreratuaren funtzionamenduan zeregin nagusia betetzen dute. Aldi berean, berauek espazioak behar dituzte beren



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

lekutasunerako. Hau da, mundu mailan deszentralizatutako ekoizpen guneak eta beraien artean elkar konektatuta leudekeen espazioak.

66) Goi-teknologiako jarduera industrialek (mikroelektronika, bioteknologia, robotika eta aeroespaziala) osatzen dute hiri-eskualde dinamikoenen ekoizpen sistema. Berrikuntzak, zerbitzu jarduera aurreratuak, (marketinga, diseinua eta laguntza teknikoak), finantza eta aisialdi zerbitzuak ezarriz, manufakturenek ekoizpena bereizten dute.

67) Globalizazioa nazioarteko orde berria eta lan banaketa sortzen ari da. Horrela bada, lehiakortasunaren areagotzeak herri, eskualde eta hirien ekoizpen berregituraketa suposatuko luke. Enpresek ez dute bakarrik lehiatzen baizik eta inguru produktibo eta instituzionalarekin batera. Nazioarteko lan banaketa berriaren arabera, globalizazioak hiri eta eskualdeen sistema antolaketa berrira bideratuko gintuzke. Sare estrategiko anitzetan ekoizpen eta berrikuntza esparru berrien sarrerak egungo eskenatokiko elementu bereizlea sortuko luke.

68) Globalizazioaren logikak hiri eta eskualdeak beraien artean lehiatzera bultzatzen ditu. Horretarako, abantaila lehiakorak indartzen dizkie tokian-tokiko baliabideen hobekuntza, ekoizpen sistemen bereizketa eta mundu mailako gainerako hiri eta eskualdeekiko espezializazioaren bidez.

69) Edonola ere, lurraldeko inguruak, bertako esparruak hain zuzen, dimentsio erabakigarri eta berria hartzen du, globalizazioaren prozesuan eta tokian-tokiko enpresen eraginkortasunean ondorioak izaten ditu eta. Prestazio zehatza eskaintzen duen baliabide ekonomikotzat hartzen da lurraldea. Alegia, manufaktura eta ezagupenen kontsumoaren eta ekoizpenen arteko integrazio malguaren eskaintza

70) Distantzia eta denboraren “ezabaketaren” ondorioz, egungo globalizazio mailaren aurrekontua eragozpen ekonomikoen ezereztapena baino, eragozpen teknikoaren desagerpena litzateke. Komunikazio eta garraioen berriztapen teknikoak liriateke egoera hau ahalbidetzeko modu bakarra. Logika honen barruan, konstituzio europarrak atal oso bat eskaintzen die nazioarteko sareei, bai garraioei, bai telekomunikazio edo energiari dagokienean, behin ere apustu honek ingurugiroan eragiten dituen ondorioak aipatu gabe.

71) Ekoizkinen garraio sistemen hedapen eta bizkortze izugarriak ahalbidetzen du ekoizpenaren antolakuntza modu “transnacional”ean. Berau eta informazio sistemen garapen prozesua batera egin dira. Azken honek sistemaren zilborretik ekoizpen prozesua garatzeko aukera luzatzen du.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

72) Ekoizpenaren eremuan eta eguneroko bizimodu eta lan-burutzapenaren esparruan aldaketa nabariak izan dira. Hauexen ondorioz, egungo ekoizpen eta lurralde eremuan, garraioak, telekomunikazioa eta energia elementu garrantzitsuenak lirateke.

73) Ekoizpenaren esparruan, landutako produktuen merkatuak erdigunean daudenez gero, inguruko zenbait herritarako industria-arlo zehatz edo etapa espezifikoen deserdirapenak motordun mugikortasun beharren hazkunde esponentziala ekarriko luke. “Fabrica difusa” eta “just in time” ereduetan oinarritutako teknika berriek mugitu gabeko kapitala eta biltegiatze kosteak murrizteko asmoz, behin eskaria ezagututa, stockak gutxitzea bilatzen dute. Horrela, garraioa ekoizpen “katearen” elementu garrantzitsu bihurtzen da, lantegitik kanpora atereaz eta berau ere ekoizpen “bitarteko” bilakatuz.

74) Merkataritza banaketa mota berriak, kontsumo arauak eraldatu eta autoaren erabilera sustatzen duten merkatal gune handiak eta, aisialdiaren gorakada eta merkantilizazioa garrantzi berezia hartzen ari dira.

75) Eskualde metropolitarrak gero eta egitura zehaztugabe eta barreiatuago dauka inguruan. Beraz, garraioari dagokionean, garraio bide pribatuari ematen zaio garrantzia, hazkunde berriaren izaera hedatuak baliogabetzen baitu garraio bide publikoa. Eskualde metropolitarretan errepidezko mugikortasun motordunaren igoera honek espazio isla dauka garraioari eskainitako lekuaren garrantzian, "postfardista" metropolian giza-harremanak eta bizimoduak baldintzatuz.

76) Erdi Aroko hirietan bide-sarearen portzentaia ehuneko 10rekoa zen eta kalean hainbat eginkizun eta jarduera ahalbidetzen zituen, hiriko bizimodua bertan garatuz. XI .mendeko zabalguneean, zegoeneko bide-sarea hiri-eremuko ehuneko 15 eta 20ren artekoa zen. Espaloia eta galtzada bereiztu ziren, garraioak eremu propioa bereganatuz. Egungo eskualde metropolitarran, Lor Angelenen legez, bide-sareak bi heren eskuratzen ditu. Bide-sareko eremua erabat berezitzen da, bere erabilerak beste eginkizunak galaraziz. Hau da, eremu funtzio bakar bilakatzen da. Honen ondorioz, hiri-bizimoduak harremanen aberastasuna, aniztasuna eta gaitasuna galtzen ditu.

77) Hiper mugikortasunak definitzen du kapitalismo garatua. Bere etengabeko hedapenak eragiten dituen kanpoko ondorioak -gizarte eta ingurugirokoak- kontuan hartu gabe eta ailega erraztasuna garrantzitsuena dela eta ez mugikortasuna, zalantzan ipini gabe. Jariakortasun goiena eta kapitalaren errotazioa ahalbidetzen duen abiadura hazkorra “aberastasunaren aurpegi ezkutu” bihurtzen da.

78) Garraio Politika Europarrari buruzko Liburu Zuriak apustu honen ondorioak argi uzten ditu: erregai fosilen mendetasun urriago eta ondo burututako hiri-garraio sistemak beharrezkoak izango dira Europako mugikortasun jasangarriaren helburu komuna lor dadin.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

79) Gero eta handiagoa den kongestioak arriskuan ipintzen du mugikortasuna. Honek koste handiak dakartzkio ekonomiari (elkarteko barneko produktu gordina ehuneko 0'5a eta, ehuneko 1era igoko dena 2010erako).

80) Informazio teknologia berriak eta telekomunikazioak, garraioarekin batera, egungo eskualde eta ekoizpen ereduko funtsezko elementuak dira. Hauek gabe bidera ezina litzateke Inguraldeko lan merkatuen baldintzen abantaila konparatiboez baliatzea. Hauexek ekoizpen kosteak izugarri merkatzea ahalbidetzen dute eta aldi berean, kapital metatze prozesuak erdiratzea.

81) Etorkizunari buruzko azterketek erakusten dute gizadia urbanizazio mundu baterantz mugitzen dela. Mundu horretan, nekazal guneak ere, hiri-guneen sistema antolatuen parte izango dira. Hirien balizko desagerpenaren oinarrian, gizarte-antolaketarako eskualde-eredua bezala, bi fenomeno egongo lirateke:

- informazio iraultza teknologikoa
- komunikazio eta ekonomiaren globalizazioa.

Gipuzkoako inguru zabaletan gertakari hau dagoeneko, abiatu da eta Donostia-Baiona Eurohiria apustuak bere egonkortasuna bilatzen du.

82) Globalizazioaren eragin espazialak lurralde gainean esku-sartzeko eredu berriak dakartza. Hauek ekonomiaren baldintza aldakorretan egokitzen den planteamendu malguan oinarrituta daude, zeinek aldi berean, hiri-gune zehatzen gaineko interes pribatuei erantzutea ahalbidetzen duen. Modu honetan, epe motzeko egitasmoen garrantzia azpimarratu egiten da, hiriaren irudi zehatza definitzen duen epe luzeko egitasmoaren gainera. Legearen testuingurua aldatzen da, hain interbentzionista eta zurruna ez den planteamendu baterantz. Baina honek ez du adierazi nahi gizarte-arlo eta kolektibo ezberdinen parte hartzea handiago izango denik hiri-jardueretan. Kontrakoa, mekanismo demokratikoetatik gero eta urrunago eta hiera/jerarkizatuago dagoen erabaki hartzea, burokratismo eta teknizismoan sakontzen da; hori bai, erabakiak hartzeko prozesua gero eta irekiago espazio gaineko kapitalaren interesei.

83) “Hiri Globaletan” gune zehatzen berregituraketa sakona ematen da eta, proiektuaren arabera, planteamendua edozein momentutan aldatzen da (normalean tertziario garatuarena), baina baita beste batzuen ere, Azoka Guneak edo Teknologia-Parkeak kasu. Azken hauek eskualde metropolitarran kokatu behar dira, erdibanatutako aginte betebeharra gara dezaten.

84) Hiri-ehun gaineko ebakuntza kirurgiko hauek kapital pribatuak bakarrik ezin egin ditzakeen inbertsio ugariak behar dituzte, beroni errentagarri suertatzen ez baitaio. Korporazio edo “gizarte-elkarte” publiko-pribatuen eredu pean, lurralde gaineko kudeaketa edo inbertsiorako tresna berriak osatzen dira. Hiri-espazioaren kudeaketak inbertsio berriak erakartzea bilatzen du, eskualde metropolitarraren nazioarteko lehiakortasuna bermatua izan dadin diskurtsoa defendatuz.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

85) Hurrengo hausnarketa bereziki interesgarria da: Hiri-garapena “global eta tokian-tokikoa” egituren arteko bitartekaritzan erabiltzen den tresna da. Bere helburu nagusia (korporazioarena) nazioarteko kapitalaren erabakiak erraztea da lekuan-lekuko esparruan”. Aldaketa bat ematen da, planeamenduaren jarduera eta metropolitar kudeaketarena ez ezik, baliabide publikoen patuarena ere bada. Garraio eta telekomunikazio sistemetan egindako inbertsioekin. Honek tokian-tokiko finantzen krisialdia eragiten du, egungo eskualde metropolitarrek dakarten funtzionamendu gastuen gorakadengatik.

86) Euskal Herriko testuinguru geografikoan, lurralde gaineko eredu berriak mimetikoki gorpuzten dira. Horrela, Nafarroan adibidez, Iruñerria, esparru metropolitar bezala garatzen ari da. Epizentroa hiriburuan duela, arro osoan zehar hedatuz doa (Mendillorri, Etxabakoitz, Barañain, Zizur, “Villava”, Burlada, Berriozar, Arre, Noiain, Aizoain, Huarte, etab), nekazaritzarako gaitasun handiko nekazal esparruak irentsiz eta koste altua eraginez, komunikazio periurbanorako bideek eragindako behar berriak direla eta.

87) Bestelako intentsitatez, baina antzeko emaitzekin, -arlotan tertziario ia osoaz gainera, Euskal Herri Kontinentaleko biztanleria, Lapurdiko kostaldeko tartea biltzen da, BAB pilaketa deitutakoan (Baiona, Angelu, Biarritz).BABekin batera, Gipuzkoatik Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren proiektuaren inguruan 600.000 biztanleko masa kritikoa antolatzeke apustua egiten da, eurohiriaren ondorio biderkatzailea bilatuz Europako maila ertaineko hiria bezala.

88) Taula: Euskal gune metropolitarren pilaketa. 2001.

Bilbo metropolitarra	Bizkaiko biztanleriaren ehuneko	77a
Vitoria-Gasteiz	Arabako “ “	76a
BAB (Baiona,Angelu, Biarritz)	EH Kontinentaleko “	56a
Donostialdea	Gipuzkoako “	46a
Iruñerria	Nafarroako “	35a

Iturria: berezko elaborazioa.

89) Bere aldetik, Bilbo metropolitarrek “hiriburuen euskal polinuklear sistema” ren barruan zeregin nagusia bete beharko luke. Horretarako, abiadura handiko euskal “Y”a, Guggenheim museoaren eraikuntza (erdibanatutako aginte funtzioak beteko lituzke) edo Sondika-Loiuko aireportua bezalako proiektuak osatzen ari dira. Aipamen berezia merezi du, Foru-Aldundien eskuetan dauden eginkizun nagusiei dagokienean, EAEko bitxikeria administratiboa dela medio, Lurralde Historiko ezberdinen arteko lehiakortasun lasterketa irabazteko “gerrilla gerrak”. (5 aireportu elkarrengandik oso hurbil, eskaintza bereiztu gabeko Kongresu jauregiak, Kurssal, Europa edo Euskalduna, Gasteizko Artiumen estrainaldia, etab...) Politika honen arriskuak begi-bistan daude,



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

gaizki ulertutako bereizkeria herri eta eskualde ezberdinen arteko gehiegizko eta suntsikorra den lehiakortasuna eragin dezake.

90) Hirien zalantzazko boterea dela eta, kontuan hartu behar da bertatik prozesu zentralizatzailearen mimetizazioaren arriskua, megahiriak sustatzeko modua bezala, gune metropolitarrak handiak, hiri-estatuak nazio-estatuaren ordezkatzeko saiakeran; nekazaritza desertizazioa, biztanleriaren pilaketa eta, batez ere, hiri handien boterea lagunduz. Polarizatutako lurralde ereduak aurrera jarraituz gero, hiri-estatuak nazio-estatuaren itxura (eginkizun,...) hartuko lukete, baina biztanleen baterakotasuna eta desideologizazioa lagunduko lukeen egoera batetik, lurralde eredu zehaztugabe batekin kontrastatuz. Honen ondorioz, globalizazioaren atzetik dauden egiteko botere ekonomiko-finantziarren helburuak lagunduko lituzkete.

91) Aalborgeko agiriak, "Sostengarritasunerako Hiri Europarren agiria"k alegia, zuzen aurreikusten du arazo hau, baina beste akordio anitzetan bezalaxe, ez da hitzetatik ekintzetara igarotzen: Ondo ulertzen dugu lan banaketaren eta eginkizunen egiturak, lurzoruen okupazioa, garraioa, ekoizpen industrialak, nekazaritza, kontsumoa eta aisialdirako jarduerak, hau da, egungo gure bizimoduak eta ondorioz, gure bizikaltateak izadiak bizi dituen ingurugiroko arazo askoren arduradun bihurtzen gaituela. Berau, bereziki esanguratsua da Europako biztanleriaren ehuneko 80a hiri-guneetan bizi dela kontuan hartzen bada.

92) Ikasi egin dugu mundu osoko biztanleria, eta are gutxiago datorren belaunaldiak, ezin direla heldu herri industrializatu eta baliabideen egungo kontsumo mailara Kapital naturala suntsitu gabe.

5.- LURRALDEA ETA NORTASUNA

93) Estatu-nazioaren sorrerak sistema ekonomiko kapitalistaren aro baten beharrei erantzuten die, hau errekurtsuen erabilera eta kontrolaren gaineko konpetentziak arautzeko estatu erkidegoen markoa izanik. Globalizazioa, kapitalismoaren garapenaren fase berri honetan, zenbait lurralderentzat mehatxu bat da (herriak, hiriak eta herrialdeak); hau da, mehatxu hau autonomia galeran datza. Egungo egoeran ingurunea kontrolatzeko eredu kanpoko erabaki zein prozesuek bertakoek baino garrantzi gehiago daukate. Honek bertakoen bere ingurua kontrolatzeko gaitasunari kalte egiten dio.

94) Demokrazia eza izan da Europar erakundeek eta are gehiago, Europako batasunaren eraikuntza prozesuan zehar erakutsi diguten bakarra. Bide berdinetik jarraituz eta hiritargoa zein estaturik gabeko herriak kontutan hartu gabe Europar kongresu konstituziogilea abian jarri dute. Hau demokrazia ezaren adibiderik argiena da. Eraikitzen ari den Europa berri hau kontrolatzeko ez dago inolako mekanismorik; alde batetik europar honek kide diren estatuaren kulturak bultzatzeko apustua egiten du baina



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

bestetik herri hitza nahita baztertzan du eta euskara bezalako Europako beste hizkuntza batzuen defentsa zein bultzada ahazten ditu.

95) Globalizazioa desterritorializaziotzat, zehatzetik (bizi izandako lurraldeak, gizarte bereiziek bereganatutakoak) abstraktura doan igarobidetzat jo dezakegu. Kultura eta kapitala globalizatuen eta herritarren mugikortasuna bilakatzen den heinean, lurraldeen berezko ezaugarriak (ekonomia, jendea, nortasuna) ere desitxuratzen dira, ahultzen dira. Hauxe besterik ez da gure eskualdeko gobernuen apustua Transakitanari buruzko eskualdeaz hitz egiten dutenean. Hauxe da euren bidea europar ekonomiaren zentralizazioaren ardatzetan sartzeko.

96) Nortasunaren definizio garaikidea egiterako orduan izaera sozioespazialetik ez ezik soziokomunikazionalen ere oinarritu behar da. Nortasuna bi fronte dituen errealitatean oinarritzen da; alde batetik bizi garen lurraldearekiko bertakotzearen bidez eta bestetik tokian -tokiko ez diren bertako komunikazio sareetan parte hartuz.

97) Nortasuna soziokomunikazionalen azalarazte post -moderno honek, herrialde mailako estrategiak diseinatzeko eta berauei zentzu politikoa eta lokala emateko orduan, erronka potoloak planteatzen ditu. Zergatik hau? Nortasun nazioterritoriala bertako zein herrialde mailako garapenaren alde egiten duten energia mobilizazioan ezinbesteko faktorea delako.

98) Lurralde mailako kulturak mendetasun egoera bati egin beharko diote aurre, hau da, desagertzen ez badira ere harremanetan sartzeko modu berriak aurkitu beharrean daude. Kasu gehienetan mendetasun harremanak izango dira hauek eta indar handiko globalizatutako komunikabideek lagunduta agertuko dira. Komunikabide hauek kontzientziak erabat bideratu gabe, talde imaginario berria osatzen dute.

99) Espazio ekonomiko globalean, jarioen ekonomiak eguneroko errealitatearekin kontraste egiten du. Lurralde zehatzetako errealitate hau tokian toki bizi behar da, non tokiko erakundeek gero eta anitzagoak diren gizarteen kultura integrazioan funtsa garrantzitsua lortzen baitute. Multikulturalitatea garatutako gizarteetan sortutako erronkei ez zaie irtenbiderik eman eta hainbat gizartetan arrazakeria eta xenofobia areagotzen ari dira. Globalizazio prozesua guztiz kontraesankorra da, mundializatutako kapital finantzieroari mugarik jartzen ez zaion bitartean, lan indarraren migrazioari, hau da, pertsonen gero eta muga, oztopo gehiago jartzen ari zaizkio.

100) Sinesmen, gustuen sortzaile eta boteredun totem honen aurrean nortasun historiko zein berreraikiaren berrestea ematen da eta eskualde eta lokal mailako gobernuak ugaltzen dira. Balore globalizatu berrietan kontsumoaren logika, ezberdintzea baztertzaila eta Hobbes-en gizakiarentzat gizakia otsoa denaren ideia nagusitzen dira. Lurralde nortasuna duen logika sinbolikoa (honetan mitoa da talde inkontzientea mugiarazten duena) taldea da elementu bizi-emaille eta suspergarria.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

101) Ikuspuntu demografikoa kontutan hartuta, antzinako abertzaletasuna, inperialismoa eta egungo prozesu globalizatzailea lan-banaketa sozialaren areagotzea aro ezberdinen ondorio bezala azaldu nahi dute. Nazioarteko lan-banaketa eta estatu nazio markoa gainditzen dituzten etnien arteko harremanak areagotu dira eta globalizazio prozesua guzti honen ondorioa da.

102) Biztanle kopurua ekosistema baten jasangarritasuna oinarritzen da; Eta lurralde hori zabaltzeko beharra biztanleriaren hazkundera gainditzean gertatuko zen. Hau berezko baliabide eta teknologia berrien bidez handitzen jarraitzea ezinezkoa denean edota biztanleria beronen kontsumo maila murrizteko prest ez dagoenean gertatuko litzateke. Guzti honek, ingurugiro ikuspuntu batetik, bere garaian estatu-nazioen azalduko luke.

103) Lurralde marko ezberdinen garapena aztertzeke orduan jasangarritasun kontzeptua oso eraginkorra da eta honen definizioa hau da: habitat zehatz batean dauden espezie bereko pertsonen (kasu honetan gizakia) kopurua da. Edo aldiz, ekosistema batek biztanle kopuru zehatz bat izateke duen gaitasuna; guzti hau baliabide materialak hondatu gabe. Nazioarteko lan banaketa eta estatu –nazio markoa gainditzen dituzten etnien arteko harremanak areagotu dira eta globalizazio prozesua guzti honen ondorioa da.

104) Lurralde mugakideen artean borondatez zein halabeharrez egindako elkar truke harremanak ezarri ziren. Horretarako muga batzuk gainditu behar izan ziren; muga fisikoak (bideak), muga fiskalak (aduanak) eta merkatal-erregularizazioarenak (kodigo zibila eta merkatal kodigoa). Baina giza-talde guztietan arau hauen ezartzea kasu guztietan ez zela baketsua izan gogoratu beharra dago: euskal herrian esate baterako gerra karlistak edo egun hego euskal herrian indarrean dauden kontzertu eta hitzarmen ekonomikoak. Arau hauek ezartzeko orduan lurralde marko zabalak menperatzeko gai izan ziren erakunde politiko burujabe laguntza behar izan zuten. Prozesu hau gobernuko erakundeei boterea ematean datza eta ez globalizazioan bezala merkatuari ematean.

105) Giza-talde baten lurralde zabalkundera gertatzeko presio demografikoa zein ezarrita dagoen ekosistemaren zama gaitasunaz gain beste faktore batzuk eragiten dute. Taldeak diseinatutako sistema ekoizleak zenbaterainoko energia eta material isuriak behar dituen eragina dauka. Hau gizarteak ekoizpena zelan antolatzen duen eta hau kontutan hartuta, naturarekiko harremanak zelakoak direnekin lotuta dago. Hau, gizarteak ekoizpena zelan antolatzen duen eta hau kontutan hartuta naturarekiko harremanak nolakoak diren arabera zehaztuko da. Gizarte-sistemak energia zein material isuriak eta lurraldearen beharrak (jarrera territorialistak barne) kudeatzen ditu.

106) Haraino helduta eta guri dagokigun lan esparruari jarraituz euskal herriko gizarte eragileek (euskal sindikalgintzaren gehiengoak) etengabe egiten ari diren eskaerari heldu behar diogu: euskal sozioekonomia esparruaren aldarrikapenari. Aldarrikapen sozial eta identitarioa da hau eta lan honetako pasarte honetan azaldukoarekin talka egiten du honek; Berezko sozio-ekonomia esparru bat izateko nahia eta beronen kalifikazio eza



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

bateraezinak dira. Hau da, arazoaren muinera jo behar dugu: lurralde-eremu honen kalifikazioa bertan dauden osagaien araberrakoa izango da: euskal ekoizpen sarea eta kontsumo eta intsumo maila.

107) Isurien zabaltasunak kontrola behar duten lurraldeen zabalera bikaina zehazten du: material eta energia isuriak zenbat eta linealagoak izan orduan eta lurralde gehiago kontrolatu behar. Gizarte-sistema zenbat eta entropiakoa izan orduan eta lurralde gehiago kontrolatu beharra dauka honek. Hala ere, kontrol hori bide ekonomiko, politiko edo militarren bidez gauzatu daiteke, okupazioa edo kolonialismoa alde batera utzita.

108) Ingurugiroaren gaineko eragina aztertzeaz gain, klabe politikoan oinarritutako botere politikoaren azterketa egitea ezinbestekoa da; botere politiko berdefinitu beharra dago eta hau eskuragarri diren ekoizpen-baliabideak mugatu eta kudeatzeko gaitasuna bezala definitu behar da. Aldi berean, ekoizpenaren gauzaperari ez zaio inolako muga sozialik zein ingurugiro mailakorik jarri behar. Eskualdeko gobernuen helburu nagusietarikoa finantza-kapitalaren internalizazioa ahalbidetzen duten ekoizpen-baldintzen ekoizpena da.

109) lurraldearekin lotutako identitatearen gaiari berriro helduz denbora elementu nagusi agertzen zaigu, zeren eta hau kontzientzia identitatearen benetako lokarria da. Denboraren antolaketak komunitatearen memoria, identifikazio sinbolikoa edo imajinario kolektiboa osatzen duten sinismenak sendotzen ditu. Denbora eta lurraldea kontratu sozialaren parte lirateke, hau da, baldintza eta identifikazio multzo bat bezala lirateke. Identifikazio eta baldintza hauek kontzientzia etnikoa eraikiko duen izatea sortuko dute.

112) Garapenarenerako planifikazioan oinarritutako kulturarik gabeko ekonomiaren ustez lurralde eta natura kontzeptu pasiboak dira. Hau da, oinarritzko baliabideen ekoizpen ustiaketarako eskuragarri erreserben sinonimoak dira, hain zuzen ere. Era berean, hiriak sortzeko hedapen fisikoa soilik ulertu daiteke unibertso abstraktu batean non lur-aniztasunari bere heterogenitatea eta konplexutasuna kendu dizkioten. Esandako guztia azaltzen da lur-errentaren teoria liberalagatik eta euren plusbalioa espekulatibo eta hazkunde metatua elkarrekin ibiltzeagatik. Hau da, hirigintza modernoa jarraitutako bidea lurralde unibertso ezberdindua, konplexua, bizia eta anitzaren kontrakoa da.

113) Bioaniztasuna kontzeptutik aniztasuna biologiko urtzera pasatu nahi izateak, ekosistema sozialen funtzionamenduaren ezagupen eza agerian uzten du. Bioaniztasuna kulturalaren defentsa eta berreskurapena ezinbestekoa da bioaniztasun biologikoa zein naturalaren biziraupena ziurtatzeko. Aniztasunaren onarpenetik kultura hiri, zein lurralde bateko garapen prozesuan ezinbesteko faktorea dela baieztatzen da, eta kultura homogenizatzen eta globalizatzen duten prozesuen aurrean tokian tokiko kulturak berbaloratzen dira.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

114) Arestian esandakoarekin jarraituz, Europako batasunak hiri- ingurumenari buruzko liburu berdean oinarrituko printzipiotzat jotzen du hurrengoak: bertako hirien nortasuna babestu, baloratzeko eta era berean, historia eta tokien arteko harremanak bultzatzeko asmoa azaltzen du. Europako hiri jasangarrien informeak ideia hau berresten du: jabetza historiko-kulturalari garrantzia ematen zaio zeren eta balore kultural, estetiko, eta irudiari buruzkoa kalitatezko bizimodu baterako ezinbesteko elementutzat jotzen dituzte. Faktore hauei, ingurugiro faktoreei bezala, lehentasuna eman behar zaie, nortasun galera, saihesteari begira.

115) Zenbait egileren antzera, txostenak ere azpimarratzen du kultura homogenizazioak txirotasuna dakarrela. Honen aurrean, bertako eta eskualdetako nortasuna islatzen duten produktu kulturalen bilatzearen bidez, giza taldeak erantzuten ari dira. Gizarte eta kulturako sustraiak indartzeko beharra dute jende kopurua hasi egiten da merkatal harremanaren progresio garatzen den heinean (Batzorde Europarra 1996ko Martxoa)

116) Kultur homogenizazioaren aurkako borroka paisaiaren babesaren ezinbesteko elementua da. Paisaia (taldeak ingurumenari buruz daukan pertzepzio subjektibo moduan ulertuta) nortasunaren definizioa egiteko orduan elementurik nagusietarikoa da; eta hau izate sentimendua sortarazteko gaitasun handiko objektu sinbolikoa da. Euskal Herria inguruko azterketa honetan, mendizaletasuna talde- nortasun ezaugarri bat dela agerian dago. Paisaiarekin bat egitea, gurea balitz bezala sentitzea baieztapen kultural bat da eta hau pinu insignisen monolaborantzaren baterakotasun kulturalarekin alderatuz guztiz kontra jarria da. Pinu insignisak pentsamendu bakarraren baloreak biltzen ditu.

117) Globalizazioan amaitzen duen lurralde zabalkuntza prozesua, estatu nazionalen osaketatik igaro eta gero, paisaia aldaketaren moduko prozesua dela jo dezakegu. Progresio honetan lurraren pertzepzio instrumental edo erlijioso batetik beste pertzepzio estetiko batera pasatzen da (autobideetako bazterrak berriro sortzea); taldearen jarraipena lur propioaren menpe eta honek dituen errekurtsoetatik libre geratzen den heinean. Materialaren eta baliabideen isuriak eta energia ezkututzen dira bere zabaltasunaren eraginez eta teknologiak gizakiaren inguruarekiko independentzia ilusioa elikatzen du: kapital teknikoak kapital naturala ordezkatu ahal duen mitoa da. Giza- taldearen lurralde zabalkuntzak (arrasto ekologikoa gero eta urrunagoak diren munduko bazterretara zabaltzeak), gero eta zailago egiten du espazioaren nortasuna atzematea, eta bizidun eta elkarren artean eraikitako lurralde bihurtzea.

118) Beste aldetik, lurralde zabalkundeak eta bizimodu erasokorra gure arrasto ekologikoaren zabalkuntza jasanezina ondorioztatzen dute; eta Hannover-go europar udal buruzagien adierazpenak XXI. Mendearen atarian adierazten duen bezala galera demokratiko berria da hau ere. “ *queremos conseguir politicas locales que reduzcan la huella ecologicade nuestra comunidad. No que remos que nuestro modelo de vida dependa de la explotacion de seres humanos y de la naturaleza en otras regiones. Valoraremos cualquier actuacion de nuestros gobiernos locales que vaya en contra de nuestro proposito de no causar daños ni traspasar cargas a las generaciones venideras.*”

119) *Frenar el “dumping” laboral y medioambiental incluyendo los estandares sociales y medioambientales en acuerdos de comercio internacionales y multilaterales,*



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

y con ello contribuir a paliar la pobreza. Los mercados financieros, que gobiernan el flujo de capital y las inversiones no estan controladados democraticamente.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

6- ONDORIOAK

120) Erabaki politikoen atzetik dauden ekonomia presio taldeek egintza burutuen politika egiten duten bitartean, Euskal Herriak, iparrik gabeko itsasontziak bezala, botere politikorik gabe, bere garapen ereduari buruzko giza-adostasunik gabe, eredu propioak ezartzeko aukerei buruzko giza-eztabaidarik gabe, europar eraikuntza prozesua leihotik begiratzen du. Gure gelditotasunaren aurrean, gaur erabakitzen ari denaren eraginak eta garrantziak lurralde eta giza-desegituraketa hazkorreko eskenatokira garamatzate. Gero eta gehiago begiratu eta gutxiago parte hartu.

121) Europa totem bezala, Europa aurrerakoi, solidarioa eta berdea “gauche divine”arentzako amarrua besterik ez da. Globalizazio prozesuaren itsaso zabalera garamatzen amua, noraezean, zuzen ibiltzeko itsasargirik gabe. Ezpain margotu eta soineko dotoreko bihotzik gabeko panpina. Europaren etorkizunari buruzko eztabaida ez da iragarki kanpaina bat baino. Marketing berdeko subproduktu bat, zeinek etorkizuneko apostolek, hilotz hatsa dariela, litezkeen munduen artean onena edo bakarra legez aurkezten duten errealitate latza ezkututzen baitu.

122) Globalizazio maparen osaketarako baldintzak hurrengo hauek lirateke:

- eremu ekonomiko europarra ezinbesteko joko zelai bihurtzen da bloke politika ezartzeko, non sistema ekonomiko kapitalistaren garapenak zalantzarik gabeko nagusitasuna hartzen duen.

- litekeenaren lau bazterren barruan jokatzera derrigortzen gaituzte.

Mapa honen eraketak zuzenean egiten du talka gizarteko geruza zabalaren behar eta itxaropenekin, zeintzuk mundu osoan hartu-eman komertzialen bidez kotasunean oinarritutako mundu mailako gutxieneko ongizatearen beharrari eusten dioten.

123) Historiaren amaierarantz garamatzen bide honetan, pentsamendu bakarraren buruak izadi eta kultura aniztasuna suntsitzen ari dira, Dedalo labirinto bilakatutako lurraldea, Europako herrien arteko batasun anaitarraren ametza. AEBen politikari (freno/galga/balazta) eta kontrapisu zereginen aurrean, Europako buruek merkatuak irabazteko lasterketa baten aldeko apustua egin dute, enpresa transnazional eta kapitalaren joko arauak onartuz.

124) Konstituzio Europar Itunak Europa Batasunaren agiri, hitzarmen eta zuzendaritza askoren erabilgarritasun eza mahai gainean ipini du. Berauek biztanleria eta naturarekiko jarduera ekonomikaren integrazio eta arrazionaltasun ibilbideak garatzen zituzten. Jasangarritasunaren jitoa kolpe batez baliogabetua izan da globalizazioaren lasterketa zoroan sartzeko. Honek dakartzan ondorioekin: lurraldeko metropolizazioa, nortasun konzientziaren ukapena, baterakotasun kulturala, giza-bikoiztasuna eta ingurugiroko erabilera maltzurra eta suizida aldi berean, Europako sare handien euskarri bihurtua.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

125) Metropoli europarrak lotzeko abiadura handiko tren bezalako apustuak Europa Batasunean azken hamar urteetan idatzitako literatura guztiaren kontra azaltzen dira. Hitz borobilek arrazoi karratuak ezkututzen dituzte. Lurraldeko lehiakortasuna bezalako arrazoiak aurreikusten den esparru ekonomiko berrian potentzietateen eramaileak dira. Eta gizarte eta ingurugiroan kalte handiko eragileak. Geldiezinezko mugikortasun motordunaren hazkundera, jasanezina den energiaren kontsumoa, nekazal eta hiri-eremuen arteko mugen desagerpenak dakarren lurraldeko urbanizazio hazkorra, kultura baterakotasun edo tokian-tokiko nortasunen gaineko eragina, bere larritasun osoan neurtu beharreko ondorioak dira.

126) Berba gozoak, baselina europarra, kolpe batez indargabetuak izan dira gaurkotzeko (trepanazio) globalizazio sendatzailearen tenporizadorea, urkamendi planetarioa ez den edozein eskenatokiren ukapenarena. Boxeo konbate batean legez jokatu behar dela sinestarazi nahi digute eta inguruko herriak ez baditugu jipoitzen, zigorra historiako zabortegia litzateke. Non geratu zen ametz europarra? Ziur asko multinazionalen bolanta aseezinen sareetan. Arrazoiaren ametzak munstroak sortzen ditu.

7-EBAZPENAK

1. Garapen jasangarriari buruz

127) Rio 92 Batzarretik 14 urte beranduago garapen jasangarriaren kontzeptuaren etengabeko erabilerak ez du eraginkor eta benetako politika ezartzeko balio izan, egungo sistemaren ez-jasangarritasuna arintzeko. Garapen jasangarriaren erretorika ke gortina baino ez da izan, non benetan bilatu dena jasanezina jasangarria bihurtzea izan den.

2. Globalizazioa, Europa eta nazio-estatuei buruz.

128) Europar eraikuntza prozesua ke gortina baino ez litzateke bi aspektu ezkutatzeko nagusiki: Lehengoa, sistema ekonomikoaren berrantolaketaren alderdi odoltsuenak. Eta bigarrena, baztertzaila eta insolidarioez gain, gizarte eta ingurugiroan eragina duten garapen ereduaren aldeko apustuak. Europaren proiektua eta globalizazio kapitalistaren prozesua elkarlotuta azaltzen dira.

129) Estatuak beraiek izan dira, munduko eskenatokitik bere posizio nagusitik beren subiranotasuna mugatu dutenak. Ez izaki politiko supranazionalen alde, baizik eta desregulazioa, merkatuaren erabateko nagusitasuna eta bere funtsezko egileen alde. Enpresa transnazionalen alde, hain zuzen ere. Giza-jarraibideetatik Europaren eraikuntza ahalbidetzeko, liberalismo eta nazio-estatuaren arteko akordioa irudikatzea eta azalratzea beharrezko aurrekontua da, baina ez nahikoa.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

130) Globalizazioaren irabazleak mugikorrenak izango dira. Familia, kultura eta hizkuntzako sustraiak direla eta, esku-lana dugu faktorerik mugigaitzena. Hortaz, zailagoa da zergapetzea. Modu honetan gobernuak gastu publikoa handitzen jarraitu ahal izan dute, baina bilketaren zama lekualdatuz, kapitalaren errentetatik lanaren errentetara. Ekoizpen faktoreen bestelako mugikortasunak zergapen maila adieraziko luke.

131) Testuinguru honetan Sare Transeuropearrei aurka egitea (bai garraioetan, AHT, bai energia edo telekomunikazioetan), metropolien onurako lurralde batzuen sakrifizioari (non erabakiguneak erdiratzen diren, zentralitate ekonomiko europarreko ardatzetan ezarriz) eta kapitalaren ekoizpen baldintzen berregituraketari aurre egitea litzateke.

3. Lurralde metropolizazioari buruz.

132) Lurralde antolaketa gizarte osoaren espazio-adierazpen politiko, ekonomiko, giza, kultural eta ekologikoa da. Pentsaera ekonomikoaren oinarritzko mailen arteko lurralde dimentsioa berreskuratu behar da desregulazioa eta "laissez faire"ri aurre egiteko, abantaila konparatiboen sorpenetarako tresnak bezala.

133) Ekonomia berrian habitat/bizileku eta talde-ekipamenduen ekoizpen eta kudeaketa ekoizpenaren giza-oinarrian daude. Hauek biak nagusiki eskualde eta tokian-tokiko gobernuen ardura izateak bertako gobernuen zeregin politikoa indartzen du. Bitartean, estatu-nazioek, nazioarteko merkatuen (des)regulazio eredu emergenteetan (hasiberrietan) parte hartzen dute.

134) Joko zelai honetan, kapitalaren lurraldetasun galera (lurraldea euskarri hutsa legez ikusita) eta lurraldetasun zehatzaren arteko tentsioan lurralde garapenerako estrategia berriek garrantzi hazkorra hartzen dute. Logika bi hauen kontraposizio/jazargoan, global-transnazonala eta giza-lurraldetasunarenean, eskualdeko plangintzak onartu beharko luke lurraldeetatik erresistentzia joera.

135) Eremu metropolitarrak testuinguru ekonomiko hazkorra bezala, kontraesan eta tentsio berrien lapiko bihurtzen da. Honen ondorioz, bai erregulazio-bideak, bai erakunde-egiturak zartatzen dira. Gobernu metropolitarrak ez dira zuzenean aukeratzen eta biztanleriak ezin bidera ditzake. Horrenbestez, bere sorreran ez ezik, bere garapenean ere defizit (ments) demokratiko izugarria azaleratzen da.

4. Globalizazioaren inguru-eraginari buruz

136) Kapitalismo garatuari dagokion lurralde eredu eskualde metropolitarrak da. Lurraldeko muga zehaztugabeak aurkezten dituen eredu, alegia. Eskualde metropolitarrak ekarriko lituzke espazioan hazkunderen hedapen handiagoa eta nekazar eta hiri-guneen arteko muga argiak ezartzeko zailtasun hazkorra, metropolitarrak eta eskualde inguruko jardueren banaketa handiagoa eraginez.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN

Nazioarteko topaketak 2006

SOKOA III

137) Geldiezinezko mugikortasun motordunaren hazkundea, jasanezina den energiaren kontsumoa, nekazal eta hiri-eremuen arteko mugen desagerpenak dakarren lurraldeko urbanizazio hazkorra, kultura uniformizazio edo tokian-tokiko nortasunen gaineko eragina, bere larritasun osoan neurtu beharreko ondorioak dira. Energiaren kontsumoarekin batera, garraio beharren gorakada izugarria nagusitzen da lurralde eremuan.

138) Globalizazioaren eragin espazialak lurralde gainean esku-sartzeko eredu berriak dakartza. Hauek ekonomiaren baldintza aldakorretan egokitzen den planteamendu malguan oinarrituta daude, zeinek aldi berean, hiri-gune zehatzen gaineko interes pribatuei erantzutea ahalbidetzen duen. Mekanismo demokratikoetatik gero eta urrunago eta jerarkizatuago dauden erabakien gaitasunean, burokratismoen eta teknizismoan sakontzen da; hori bai, erabakiak hartzeko prozesua gero eta irekiago dago espazio gaineko kapitalaren interesei.

139) Hiri-ehun gaineko ebakuntza kirurgiko hauek, kapital pribatuak bakarrik ezin egin ditzakeen inbertsio ugariak behar dituzte, beroni errentagarri suertatzen ez baitaio. Korporazio edo giza-elkarte publiko-pribatuen eredu pean, lurralde gaineko kudeaketa edo inbertsiorako tresna berriak osatzen dira. Hiri-espazioaren kudeaketak inbertsio berriak erakartzea bilatzen du, eskualde metropolitarraren nazioarteko lehiakortasuna bermatua izan dadin diskurtsoa defendatuz. Eskualdeko gobernuek betetzen duten zeregin nagusietako bat hauxe da, kapital finaltzarraren nazioartekotasuna ahalbidetzen duen ekoizpen baldintzen burutzapena.

5. Lurralde eta nortasunari buruz

140) Globalizazioaz mintzatu daiteke “lurraldetasun” galera bailitzan, esparru zehatzetik (bizi izandako lurraldeak, gizarte berezia bereganatutakoak) esparru abstraktura emandako urratsa bezala (isuri mundu mailako eremua, desjarraitasunaren aldiberekotasuna). Kapitala eta kultura globalizatzen diren heinean eta, biztanleriaren mugikortasuna biderkatu, lurraldeen mamia bera hegazkor, zalantzazko eta zehaztugabe bilakatzen da.

141) Ildo honetan, bioaniztasunaren kontzeptua aniztasun biologikora laburbiltzeak giza-ekosistemen funtzionamendua ez ezagutzea da. Bioaniztasun kulturalaren berreskuratzea eta defentsatik natur edo biologikoaren bizi-iraupena bermatu daiteke. Ildo honetan, autodeterminazio eskubideak ekosistemen garapen demokratikoa ahalbidetzen du.

142) Globalizazio maparen osaketarako baldintzak hurrengo hauek lirateke:

-eremu ekonomiko europarra ezinbesteko joko zelai bihurtzen da bloke politika ezartzeko, non sistema ekonomiko kapitalistaren garapenak zalantzarik gabeko nagusitasuna hartzen duen.

-litekeenaren lau bazterren barruan jokatzera derrigortzen gaituzte.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

Mapa honen eraketak zuzenean egiten du talka gizarteko geruza zabalak behar eta itxaropenekin, zeintzuk mundu osoan hartu-eman komertzialen bidez kotasunean oinarritutako mundu mailako gutxieneko ongizatearen beharrari eusten dioten.

6. Ekosistemaren garapen demokratikoari buruz.

143) Herrien Autodeterminazio Eskubidean eta natura-baliabideen subiranotasunean oinarritutako "habitat"en garapen demokratiko ereduaren aldeko apustua egiten dugu. Beronek hurrengo ezaugarriak ditu: Lurra oinarritzat hartuta etorkizuna eraiki, kontsumo eta ekoizpen ereduaren premiazko aldaketa, bioaniztasuna, nazioarteko elkartasuna eta zor historikoaren onarpenaren aldarrikapena, ekosistemaren berreskuratzea ahalbidetzen duten giza-baldintzak sortzea eta herri-partehartzea gaitzat hartzea.



LURRAREN ALDEKO SOLASA

BESTE GARAPEN EREDU BAT POSIBLE ETA BEHARREZKOA DELAKO

144) Johannesburgon ospatuko den Munduko Lurraren Gailurra dela eta, LURRA Deialdiak eztabaida irekia bultzatu egin du ekologian, lehen sektorean, osasunean, kontsumoan, sindikalismoan edota elkartasun munduan lan egiten duten gizarte mugimenduen artean. Eztabaida honen helburua honakoa da: batetik, nazioarteko eztabaida eta foroetan Euskal Herri gisa egotea, nortasun kolektiboko ezaugarriak dituen herria baikara; eta bestetik, gure lurraren eta planetaren etorkizunerako nahi dugun garapen ereduaren inguruko eztabaida piztea, “globalki pentsatu, bertan jardun” delakoa errealitate bihurtuz.

145) Kontuan hartuz Rioko Konferentziatik 10 urte igaro direla, eta garapen jasangarria kontzeptuaren erabilerak ez duela balio izan benetako politika eraginkorrak ezartzeko egungo sistema ekonomikoaren jasangarriezintasunarekin bukatzeko, uste dugu garapen jasangarriaren inguruko erretorikaren benetako helburua izan dela jasangarri egitea jasanezina ez dena. Europako Komunitateen Batzordeak berak, Europako Parlamentuari eta Batzordeari egindako adierazpenean onartzen du Rioren inguruan sortutako itxaropenak ez direla bete: *“Orduz geroztik Ingurumenaren eta natur-baliabideen gaineko presioa handitu egin da, eta txirotasunak gora egin du mundu mailan. Ekoizpena eta kontsumoa bide jasangarri batera berbideratzea erreala baino, erretorikoa da”*.

146) Jasanezina dena jasangarri egiteko bide horretatik jo dute Euskal Herriko administrazio desberdinek. Itoitz-ko urtegiaren proiektua, Abiadura Handiko Trena, Eibar-Gasteiz autopista edo Transpirenaikoa, espazioaren metropolizazioa nekazal munduaren kaltetan, merkatal gune handien hedapen basatia edota energia arloko proiektuak horren adibide argiak dira.

147) Egoera honen aurrean, adierazpen hau sinatzen dugun gizarte erakundeen artean txosten bat egin dugu, beharrezkoa den gizarte eztabaidarako lan tresna izango dena eta Johannesburgoko Gailurra euskal gizartean eta mundu mailan bultzatuko duena. Txostenak bi zati desberdin ditu:

A) EKOSISTEMAREN GARAPEN DEMOKRATIKO BATETARAKO OINARRIAK

148) Hamahiru gaien inguruko neurriak: **energia, garraioa, ura, kontsumoa, lehen sektorea, ekoizpena-sozio laborala, hondakinak-kutsadura, osasuna, parajea-ondasuna, globalizazioa-aztarna ekologikoa, bioaniztasuna, lurralde antolakuntza eta parte-hartzea.**

149) Ekimenaren helburu nagusia da Euskal Herriko etorkizunerako nahi dugun garapen ereduari buruzko eztabaida irekitzea, egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuna emateko mekanismoak martxan jartzeko, eskenatoki berriak bultzatuz.



B) EREDU ALTERNATIBO BATETARAKO OINARRIAK

Geroa lurretik hasi

150) Lurra, gizakiaren edozein jardueraren oinarria, merkatu askearen esku utzi diren eta gora doazen presioen menpe dago. *Laisser faire*-ren politikak lurralde ereduari aplikatuta, nahi ez diren ondorioak ekarri ditu, hala nola: naturguneen kolonizazioa, nekazal lur emankorraren erabateko desagertzea, nekazaritzaren izaera estrategikoaren utzikeria eta zabor-janariaren hedakuntza, hirigintza sakabanatua eta gizartearen desegituraketa (elkargune eta partehartzearen desagertzea), nekazal munduaren edota bioaniztasunaren desagertzea.

151) Garraio pribatuaren erabilera intentsiboa, azpiegituren gehikuntza eta lurraldearen metropolizazio etengabea, jasangarri ezinak izateaz gain, hutsean jauzi egitea da, eta epe ertain eta luze batean gizarte eta ingurumen arloan kostu jasanezinak eragingo ditu.

152) Arlokako politikak koordinatzea, determinismo ekonomizista ekiditea, industria eta hiri-garapena kontrolatzea, nekazal eta mendi gunek babestuz, degradatutako industria gunek berreskuratzea edota lurzoruaren erabilerak zehazteko ingurumen parametroak erabiltzea, behin eta berriz ahazten diren lurralde antolakuntzaren oinarritzko alderdiak dira.

153) Nekazal munduaren bideragarritasuna mantentzeak, lehen sektorearen izaera funtzioanitz onartzeak, bere garapena erraztea faktore endogenoak sustatuz, kalitatezko jakiak ekoizten dituzten nekazariez eraturako nekazaritza defendatzeak eta gazteak bertan sartzeko lur-bankuak sortzeak, egungo sarraskiarekin bukatu eta espekulazioari mugak jarriko dizkion mekanismo juridikoak martxan jartzea ekarriko luke.

Ekoizpen eta kontsumo ereduaren premiazko aldaketa baten alde

154) Egungo sistema ekonomikoaren funtzionamenduaren oinarria da lehengai mordoan hondakin mordoan bilakatzea, non eta baliabideak mugatuak diren planeta batean. Hazkundera duen garapen jasangarri baten aldeko apostua, hazkunde lineal jasangarria, kontraesan hutsa eta iruzurra da, hazkundearen mugetatik eta lurraldearen zama gaitasunatik haratago joan nahi delako.

155) Kontsumoaren gizarteak “bizitza kalitatea” kontzeptua “bizitza maila” kontzeptuarengatik aldatu du, hazten doan gastuaren ikuspuntutik hartuta. Beharrezkoaren kategoria eta behar adinaren mugak hautsi ditu, gehiegizko kontsumorako lasterketa ero bati bide emanez, zeinek begibistakoak diren ondorioak eragiten dituen: ingurumen hondamendia, gizarte dualtasuna eta “txirotutako” Hegoa Ipar “garatuaren” indarrez ebaztea.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

156) Hori guztia gutxi balitz, kapital eta energiaren ekoizpena, naturaren kapitalizazioa, aisialdiaren monetarizazioa, edota lasterketa armamentistakoa abian jartzeko etsaiaren aitzakia erabiltzea, gizarte, ekonomian eta ingurumenean jasangarri ezinak diren ekonomiaren adar osoak ez sustatzeko babes neurriak hartzearen beharraren kontrako bidetik doaz.

157) Premiazkoa da gastu energetikoari, hondakinen ekoizpenari edota kutsadurari mugak jartzea; premiazkoa da ekoizpenaren ingurumen eta gizarte kosteak gure egitea, ekonomia harraparian eta piraterian bilakatu ez dadin. Premiazkoa da ekoizpen eta kontsumo ereduaren eta naturaren artean armistizioa aldarrikatzea, egindako akatsak onartu eta barkamena eskatzea, Alemaniak Gernikako bonbardaketagatik edota milaka australiarrek bertakoen sarraskia egiteagatik egin zuten moduan.

Bioaniztasunaren aldarrikapena

158) Bioaniztasuna kontzeptuaren irakurketa murrizta baten aurrean, eskualdeko bioaniztasuna kontzeptua eraginkorra egin eta defendatu beharko litzateke. Izan ere, bere baitan ingurumen elementuak egoteaz gain, kulturalak, hizkuntza arlokoak, ohituren, talde-lanen ingurukoak (auzolanak, bide-zidorrak), jabego komunak edota baliabideen gaineko burujabetzakoak daude, izaera komuneko talde bat berreskuratuz eta martxan jarritz, are gehiago Euskal Herria bezalako espazio polizentriko batean.

159) Bioaniztasun biologikoari dagokionez, natur-baliabideen erabileraren harrapakariarekin bukatzea natur berriztapenaren tasa ahalbidetuz, espezien desagertpenari mantenimenduaren bitartez aurre egitea eta lurralde guztiko habitaten berreskurapena, "erreresba turistikoaren" moduko irla inkomunikatueta bihurtzen dituen egungo natur gune babestuen politikatik ihesi. Egungo euskal herritar guztien moduan, etorkizuneko belaunaldiak ekosistema, paraje eta espezie aberatsez gozarteko eskubidea dute, museo bateko kontserbaziora mugatu gabe. Hauxe edozein politikaren oinarritzko premisa da, ez soilik garapen alternatiboarena, baita jasangarritasunarena ere.

160) Bioaniztasun kulturalaren alorrean, arreta berezia merezi du euskararen egoerak, Euskal Herriko eta gizadiaren ondare dena. Euskara desagertze bidean dago, pairatzen duen jazarpena dela eta, hortaz, beharrezkoa da horrekin bukatzeko premiazko neurriak hartzea eta egungo kultur uniformizazioaren disglosia egoerarekin amaitzea. Izan ere, horrek gizarte eleanitza bat lortzea eta euskal hiztunen eskubideak eta izan nahi dutenenak errespetaraztea oztopatzen du.

161) Ekonomiaren mundializazio eta merkatuen globalizazioaren aro historiko honetan, baliabideen gaineko burujabetza soilik da posible norberaren mugen eta herrien nahien onarpenarekin. XXI. mendean, herrien autodeterminazio eskubideak ukalezina behar du izan, demokratizatzen den munduko edozein estatuarentzat.

Nazioarteko elkartasuna eta gure zor historikoaren onarpena

162) Iparraldeko herrien bizitza maila bazterketan oinarritzen da eta gainontzeko gizadiari ezin zaio esportatu. Egungo sistema ekonomikoaren oinarria munduko herri



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

gutxi batzuen mesedetan beste askoren baliabideen espoliazioan datza. Zor historiko horren onarpenatik baino ezin izango da egungo egoera aldatu.

163) Orain arte erabilitako tresnak, garapenerako laguntzek edota BPGren protzentai bat kooperazioan inbertitzeak, egoera hobetu beharrean, okertu dute. Bada garaia, hitz paternalistak alde batera utzi eta biztanleen gehiengoa gose den munduaren errealiareari aurrez-aurre begiratzeko. Haurren heriotza-tasa ez da naturalki gertatzen den estatistika datu bat, planifikatutako sarraskia da, oparotasunaren beste aldea da, gure aztarna ekologikoa eramatearen ondorioa.

164) Kapital finantzieroen globalizazio eta merkatuen irekiera garaian, transnasionalek lasai jarduten dute, nazioarteko erakundeen eta jatorrizko herrien babesarekin. Euskal Herrian, beste herri askotan bezala, harro egon behar al dugu euskal enpresek euren ekonomia indizeak hobetzearren planetako beste zonaldeak hondatzeagatik?

165) Nazioarteko elkartasuna gure aztarna ekologikoa gutxitzean datza, kanpoko inbertsioek gizarte eta ingurumenean dituzten eraginak zigortzean eta ongizaterako gutxieneko standarra jartzean.

Ingurumena hobetuz gaixotasun asko ekidituko ditugu

166) Naturaren parte gara eta beratik elikatzen gara. Banaezinak gara. Airearen, lurraren, ibaien eta itsasoen kutsadura gure organoak elikatzen dituen odol emarira doaz zuzenean.

167) Haurren osasuna da arrisku handiena duena, izan ere defentsarako eta desintoxikaziorako dituen mekanismoak heldugabeak dira oraindik, eta hazkunde azkarrean bere ehunak zaurgarriagoak dira. Kutsadurak hasieratik eragiten die, fetuaren eta amaren esnearen bidez. OMERen (Osasunerako Mundu Erakundea) ikerketen arabera, ingurumen aldaketek kaltetutako %40 5 urtetik beherakoak dira eta urtero hiru milioi haur hiltzen dira kutsaduraren eraginez.

168) Birikietako minbizia, asma eta alergiak gora doaz airearen kutsaduraren eraginez, eta aurreikusita dauden zentral termikoek gora egiten jarraitzen lagunduko dute. Ozonoko kapa txikitzen den heinean, azaleko minbizia gero eta ohikoagoa da.

169) Ingurumenaren hondamendiak burua ere kaltetzen du. Naturaren kontra biziitzea gure sustraiei uko egitea da. Bestalde, produktu toxikoak nerbio-sisteman ezartzen dira, beren funtzionamendua eraldatuz. Ez da harritzekoa, beraz, depresioak, antsietateak eta erostasunak gora egitea. Ikertzeke dago oraindik, kutsadura akustikoak eta elektromagnetikoak, batik bat telefono mugikorretik datorrenak, eragiten duten kaltea zein den.

170) Industria, nekazal eta abeltzantza ustiakuntzak kalitate txikiko produktuak sortzen ditu, kutsaduraren eta lurzorua higiduraren iturri da, nekazariarentzako porrot ekonomikoa eta soziala izateaz gainera. Genetikoki eraldatutako elikagaien ekoizpenak egoera larriagotuko du eta bioaniztasunarentzat mehatxu bat izango da.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN **Nazioarteko topaketak 2006** **SOKOA III**

171) Osasun jarduera bera (ospitaletako hondakinen errausketarekin) dioxina eta merkurioen kutsadura iturri garrantzitsua da.

172) Joera hauei aurre egiteko Nazioarteko Medikuen Elkartearekin (International Society of Doctors for the Environment-ISDE) bat egiten dugu dioenean *“ingurumena eskualdeka eta globalki defendatu behar da, modu horretan gaixotasun ugari ekidituko dira, osasuna zaindu eta bizitza kalitatea bermatuko da”*, gobernuei eskatuz supermedikalizazioaren aurrean hezkuntzari eta prebentzioari lehentasuna ematea.

Parte-hartzea oinarri nagusi gisa

173) Ingurumen arloko nazioarteko dokumentu guztietan parte-hartzearen inguruan egiten den defentsa eta aldarrikapen sutsuak, Rio 92tik hasi eta Lurralde Antolakuntzaren Europako Gutuna eta Europako Batasuneko Ingurumen VI Egitaraua arte, aurrez-aurre topo egiten du parte-hartze tresnarik ez duena gizartearekin.

174) Ingurumen arloan dagoen parte-hartze zuzenerako bide bakarra Ingurumen Eraginaren Adierazpena da, alegia, ospea erabat galdu duen tresna eta praktikan baliogabea dena, administrazioaren izapide soilean bilakatu delako.

175) Administrazioak hiritarren izenean hitz egiteko zilegitasuna bere egin izateak, alderatzeko mekanismo gabeziakin lotuta, eztabaida eta kritika eraikitzailea ekiditeaz gain, konfrontazio maila handiak eragiten ditu, gizarte mugimenduen papera ez baita aintzat hartzen.

176) Eman beharreko aurreneko urratsa da egungo parte-hartze eredua kontuan hartzea, eraginik gabe uzten dituen oztopoak kenduz. Ildo horretan, ondorengo neurriak hartu beharko lirarteke: ingurumen arloko informazioa eskuratzeko eskubidea efektiboa egitea, parte-hartzearen egungo tresnak eraginkorrak bilakatzea, oinarri parte-hartzailea duten esperientzietan aurrera jo (administrazioko maila guztietan publikora irekitako batzordeak, batik bat arlo lokalean, kontsulta zuzenak jartzea eta garrantzi handiko zein gizarte eztabaida sortzen duten gaietan galdeketak egitea, herri ekimen legegileari atak irekitzea baldintza drakoniarririk gabe, korpus juridikoan gizarte zibilaren parte-hartze aktiboa ahalbidetzen duten eta izaera loteslea duten neurriak sartzea), gizarte-taldeen esku hartzearen onarpena, euren funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuen finantziazioaren bitartez, diru-laguntzen politika bertan behera utziz.

177) Proposamen baten indarra herritarren onarpenaren arabera denean, gobernuek sinesgarritasun eskasa dutela ez esateak porrotara baino ez gaitu eramango. Sakoneko aldaketak eragingo dituen gidaritza politiko bakarra partekatutako gidaritza da, non gizarte taldeek tresnak izango dituzten ingurumen politikan aldaketarako elementuak sartzeko.

178) Adostasunean oinarritutako aurrekontuekin baino ezin da liskarrazterketa eta jazarpena-enfrentamendua egoerari buelta eman, eta elkarlana-neurriak hartzea eta gizarte sinesgarritasuna-ingurumen hobekuntzan bilakatzea, gure habitataren berreskurapena posible izan dadin informazioaren eta parte-hartzearen bidez gizarte baldintzak sortuz.



EZKERRA EUROPAREN ATARIAN
Nazioarteko topaketak 2006
SOKOA III

Ekosistemaren berreskurapena posible egiten duten gizarte baldintzak sortu

179) Ingurumen egitarauak abian jartzeko gobernuek duten sinesgarritasun eza, aldaketarik gabeko erreformismotik dator, edukirik gabeko ingurumen diskurtso batetik. Ildo honetan aldaketari baietza ematen diogu, eta ezetza, aldiz, dena berdin jarraitzeko lengoaia aldatu dutenei.

180) Gutxieneko planteamendu demokratiko batetik abiatuta, etorkizunerako nahi dugun garapen ereduaren gaineko gizarte eztabaidaren ondorioz adostasun zabala lortzen ez den bitartean, premiazkoa da gobernuek ingurumenean eragin handia duten etorkizuneko planen eta egitasmoen luzapena egitea, lurra, kultura eta gizartearengan duten eraginak atzeraezinak direlako.

181) Indibidualismoaren aurrean kolektiboaren balioaren berreskurapenatik, goruntz doan balioen aldarrikapenatik eta hiritarren konzientziatzeatik baino ezin izango da energia sortzaileak askatzea, beharrezkoa dena posible izan dadin: garapen eredu alternatibo batean oinarritutako gizarte hitzarmen berria.